

**Ikastetxeak eraikitzeko
eta zahar berritzeko
txostenari**

**STEE-EILAS SINDIKATUAREN
EKARPENAK**

- 1. Sarrera**
- 2. Ikastetxe berriak eraikitzea**
 - 2.1.- Eraikin berriak egitea eta plangintza**
 - 2.2.- Ikastetxearen kokapena**
 - 2.3.- Iraunkortasuna**
 - 2.4.- Irisgarritasuna**
 - 2.5.- Espazioa egituratzea**
 - 2.6.- Segurtasuna eta osasuna**
 - 2.7.- Teknologia berriak**
- 3. Ikastetxeen zaharberritzea**
- 4. Hornikuntza eta ekipamenduak**
- 5. Ondorioa**

1. Sarrera:

Ikastetxe berria egitea eta zahar berritzea oso garrantzitsua da hezkuntza sistemarako. Ikastetxea ez da soilik klaseak mateko tokia baizik eta heziketa funtzioa betetzen du. Irakaskuntza ez da bakarrik geletan adierazten dena. Ikastetxean dagoenak eta egiten denak hezitzaile funtzioa du, zeinak geletan adierazten denarekin kontraesanean sar baitaiteke.

Ikastetxeek behar berriei erantzun behar die: irisgarritasuna, iraunkortasuna, teknologia berriak edo hainbat espazio berrien beharra, baina aldi berean eskolako espazio bera hezitzailea izan daiteke eta curriculum egitasmoen garapena ahalbidera dezake.

2. Ikastetxe berriak eraikitzea:

2.1.- Eraikin berriak egitea eta plangintza:

Jabego ezberdina izatea hasierako arazoa da, Irakaskuntza Ertainetako Nafar Gobernuarena eta Haur eta Lehen Hezkuntzako udalenak, plangintza eta lehentasunak antzemateko.

Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxe berriak behar dira auzo berrietan baita beste zenbait auzotan ere, biztanleria handitu delako. 0-3 zikloko eraikinak egiteko proposamena udalena izanda, diskriminatzailea izan daiteke toki batzuetan bai eta beste batzuetan ez bada egiten.

Ikastetxe berriak egitea beti eskaeraren atzetik joan dira. Mendillorri gertatutakoa lekuko.

Aurreikuspen ezak edo aurrekontu eskasak eraikin berrien berehalako aldaketak ekartzen ditu.

Esleipenak, enkante bidez egiten direnez gero, askotan merkea garesti ateratzen da.

Egiteko epeak zorrotz bete behar dira, atzerapenak eragozpen handiak sortzen baititu ikastetxeetan bai gurasoengan, bai ikasleengan, bai irakasleengan. Ikasturte hasiera atzeratu, obrak eta eskola aldi berean...

2.2.- Ikastetxearen kokapena:

Lehenbizikoa da kokapena aukeratzea. Ikastetxearen inguruak egokia eta osasuntsua izan behar du eta telefono antenak eta tentsio lineak urruti izatea, arlo honetako azken araudiak bete behar dira.

Zaraten mapa:

Zaratatsua ez den tokian izan behar du. Jendea bizi den tokietatik hurbil izan behar du joan etorri erosoak, lagun taldeak sortzeko...

Iristeko segurua. Inguruan semaforoak, zebrabideak, nahiko argirekin...

Iristeko bide iraunkorrak. Garraio segurua eta iraunkorrak dituen tokia aukeratu behar da. (Oinez edo bizikletaz erraz iristeko, garraio publiko eroso)

2.3.- Iraunkortasuna:

Ingurumena begirunez egina, Agenda 21 bete behar da. Ikasleak barneratu behar du jarrera hau "ikusi eta ikasi". Ura eta energia aurreztu, hondakinen birziklapena,...

2.4.- Irisgarritasuna:

Ikastetxean mugitzeko mugak, bai aldi baterako, bai betiko mugak dituzten pertsonek, jarduera edo ekimen guztiak egiteko aukera izan behar dute. Oztopo arkitektonikorik gabekoak...

Txikientzat komunak, konketak, ateen heldulekuak, argi etengailuak eta egiturazko beste elementu batzuk egokituak egon behar dira, batik bat beraien altuerari.

2.5.- Espazioa egituratzea:

Ikasleentzako espazioak: liburutegia, hizkuntza, musika, informatika, plastika, psikomotrizitate gelak, erabilera anitzeko gela, jantokiak, kiroldegiak, laborategiak edo bizikletak uzteko tokiak. Ahaztu gabe betiko tokiak: jolastokiak, arkupeak edo estalitako tokiak jolasteko euria eri duenareko.

Irakasleentzat espazioak: bakarkako lana egiteko, bilerak egiteko eta atsedenerako.

Administrazio eta zerbitzuen espazioa.

Atezaintza, mantenamendu, administrazio eta zerbitzuentzat toki egokiak izan behar dute.

Espazio bakoitza erabilera beharrei egokitua.

Eraikin hasi aurretik beharren memoria egin behar da, jarduera bakoitzari egokitutako espazioak.

Ikastetxea erabiliko duten pertsonen iritziak kontuan eduki behar dira. Izan ere, garrantzia dute eskolako bizitzan ikaslearen autonomia eta elkarbizitzatik ordena eta garbiketa arte. Eskola ezinbesteko bitartekoa da curriculum egitasmoak garatzeko.

2.6.- Segurtasuna eta osasuna:

Behar beharrezkoa da irizpide hauek kontuan izatea. Ikastetxe guztiak larrialdietan azkar eta seguru hustutzeko erraztasunak izan behar dituzte. Horretarako kaletik sarbide zuzenik ez duen solairuak eskailera bat baino gehiago izan behar duela, atek kanpoko aldera irekitzen direnak, larrialdietako irteerak libre egotea...

- Pasabideetan irristagarriak ez diren materialak erabili.
- Arkupeak, terrazak... barandadunak.
- Haur Hezkuntzako gela edo ikastetxeetan material erosoak eta seguruak, zoru hotzak eta zeramikoak saihestu. Halaber oztoporik gabeko tokiak haur txikien arriskuan jar ditzakeenik.
- Aireztatze naturala, eta behar den tokietan, laborategietan eta tailerretan artifizialak.
- Barneko zaratak saihestu. Soinu baldintza egokiak izan dituzte gelak elkarreragina bermatzeko.
- Argitasun egokia egin behar den jarduerako.
- Tenperatura egokia: neguan 20tik 23 bitartekoa eta udan 23tik 25 bitartekoa.

2.7.- Teknologia berriak:

Interneten sarbideak eskura izan behar dira fibra optikoaren bidez edo wi-fi-ren bidez. Portatilak, pantailak, kañoiak, arbel elektronikoak izatea...

3. Ikastetxeen zaharberritzea:

Nafarroako ikastetxe asko zahar berritzeko daude. 2005ean Irakasleen Batzordeko ordezkarien sindikatuek (AFAPNA, ANPE, CCOO, CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS, eta UGT) txosten bat aurkeztu zuen eskoletatik bidalitako kexen aurrean, non ikastetxeetako egitura akatsak agertzen ziren, eta aurrekontuetan ahalegin berezia egiteko.

Ikastetxeak zahar berritzeko berriak egiteko erabili diren irizpide berberak izan behar dira. Berraztertze orokorra egitea komenigarria litzateke, batik bat ondorengo arloetan:

- Instalazio elektrikoak gaurkotu.
- Amianto dagoen ala ez ikertu eta badago lehenbailehen kendu.

4. Hornikuntza eta ekipamenduak:

Ikastetxeak administrazioko anaia pobreak izan dira. Ekipamendu faltaren aurrean askotan beste departamentuek utzitakoak erabili dira: segurtasun neurrik betetzen ez dituzten tresnak lanbide heziketako tailerretan, beste sailetan kendutako ordenagailu zaharkituak... Beste aldetik kirol ekipamendu zaharkituak, ate eta saskiak lurrari gaizki tinkatuak...

Fotokopiadora eta ordenagailu berrien beharra dago ia sare Publikako ikastetxe guztietan. Segurtasun arloko prestakuntzari behar bezalako garrantzia ematen ez zaionez gero irakasleek ez dute kontuan izaten.

Irakasleen eta ikasleen mahaiak, aulkiak... ergonomiakoak izan behar dute. 0-3 ziklokoentzat tresneria berezia.

5. Ondorioa:

Ikastetxe berriak egiteari eta zaharberritzeari aurre egitea oso larritzat eta beharrezkotzat jotzen dugu. Garaiz ez badira egiten eta behar adinako aurrekontuak ez bazaizkie eskaintzen egoera larria izan daiteke epe motzera.

Hezkuntzari eskainitako aurrekontua ez da nahikoa. Behar adinako handitzea ez da izan erronka sozial berriei aurre egiteko: ikasle kopurua handitzea derrigorrezko ez den irakaskuntzan eta helduen hezkuntza iraunkorrean.

Kalitatezko irakaskuntza bermatuko duen BPGaren % 6tik urruti gaude, eta gainera oso kezkatuta gaude arlo honetan eman den aurrekontuen blokeoa dela eta.